



**Arartekoaren 2015R-1423-14 Ebazpena, 2015eko martxoaren 9koa. Honen bidez, Donostiako Udalari gomendatzen zaio berriz azter dezan Aparkaldi Arautuaren Udal Zerbitzuko Ordenantza, TAO zonako bertakoei buruzko araubidea zabaltzeko. Erakunde honen ustez, irizpide orokor batzuk (zerbitzuaren onuradunak diren ibilgailuen zehaztapenaren oinarri direnak) eta araubide horren xedea betetzen dituzten ibilgailuak barne hartu beharko lirateke.**

### Aurrekariak

1. (...) Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, Donostiako Udalak berraztertze-errekurtsoari erantzun, eta egoiliarraren TAO bereizgarria eman ziezaion. Errekurtsoa aurkeztu zuen egoiliarraren bereizgarria bere furgonetan (Sprinter 312-D) jartzea ukatu ziotelako.

Kexagileak esan zigunez, aurretik zeukan furgoneta zaharrea bazuen horrelako bereizgarri bat, baina ibilgailu hori, antzekoa den furgoneta moderno batekin ordeztu zuen. Horrexegatik eskatu behar zuen bereizgarri berri bat. Furgoneta berri hori, aurrekoa bezala, bere ibilgailu bakarra da eta hirian ibiltzeko nahiz asteburuetan eta oporretan kanpora joateko erabili ohi du. Izan ere, aurreko ibilgailuan bezala, barrukoa bertan lo egiteko egokituta dago.

Bereizgarri berria ukatzeko arrazoa, dirudienez, ibilgailu berriaren dokumentuetan agertzen zen kategoria –“etxe-ibilgailua”– izan zen.

Hala ere, kexagileak azpimarratu zuen hori ez zela furgonetaren erabilera bakarra; bere ibilgailu bakarra zela eta egunero hirian ibiltzeko erabiltzen zuela. Gainera, ibilgailuaren pisua 3500 kg baino gutxiagokoa da eta tamainari dagokionez, ez da handiagoa TAO zonako aparkaleku erreserbatuen muga baino.

2. Kexa izapidetzeko onartu eta aztertu ondoren, Donostiako Udalera jo genuen kexagileak helarazitako gaiari buruzko informazioa biltzeko.

Gure eskaerari erantzunez, Donostiako Udalak zera jakinarazi zigun: TAO zonako egoiliarren bereizgarria ukatzeko erabakia bat dator Aparkaldi Arautuaren Udal Zerbitzuko Ordenantzari jasota dagoen eta aplikatu behar den araudiarekin. Izan ere, araudiak, egoiliarrentzako araubidez baliatu ahal izateko, eskatzen du, besteak beste, ibilgailua 14. artikulua zehaztutako kategorietako batekoa izatea; eta kexagilearen ibilgailuari dagokion kategoria –etxe-ibilgailuarena– ez da agertzen kategorien artean. Era berean, Udalaren arabera, Ordenantzak ez du jasotzen inolako salbuespenik gai horri dagokionez. Gainera, kexagileak aurkeztutako bereizgarria emateko eskaera ebazteko nahian, Udalak Ordenantzari ezarritako araubidea errespetatu behar izan zuen.





Udalak ez zuen azaldu zeintzuk diren arrazoiak egoiliarren araubidean ibilgailu batzuk baino ez sartzeko, eta beste batzuk –kexagilearena bezalakoak– kanpo uzteko, dituzten erabileragatik eta ezaugarriengatik (baimendutako gehieneko masa, kanpoko neurriak eta maniobragarritasuna) araudian jasotako kategorietan onargarriak badira.

3. Aipatutako informazioa ikusita, bat etorri ginen Udalarekin Ordenantza aplikatzeak ezin duela hura hautsi egin, eta horixe adierazi genion.

Hala ere, gure iritziz, kexagileak ez zuen zalantzan jartzen Ordenantzaren aplikatzeko modua –udalak nola erabili zuen araudia kasu honetan–, araudi horrek ezartzen dituen aurreikuspenak baizik; eta zehazki, ezaugarriengatik eta erabileragatik onargarriak izan daitezkeen (formalki, kategoria horietakoak ez badira ere) ibilgailuak egoiliarren araubideaz baliatu ahal direnen artean sartzeko aukerarik eza.

Hori dela eta, berriro eskatu genion Udalari Ordenantzaren 14. artikuluan agertzen diren ibilgailu-kategorietara mugatzeko arrazoiak jakinaraz ziezazkigun. Izan ere, egoiliarren araubidearekin lortu nahi duen xedea kontuan hartuta, ezin dugu ulertu zergatik geratzen diren araubide horretatik kanpo egoiliar batzuen ibilgailuak –dirudenez, kexagilearen furgonetaren kasuan horixe gertatzen da– nahiz eta, baimendutako gehieneko masari, kanpoko neurriei eta maniobragarritasunari dagokienez, arauak aipatzen dituenen antzeko ezaugarriak izan eta erabilera partikularrekoak izan.

4. Beste eskaera horri erantzunez, Udalak honako informazio hau helarazi zigun:

*“Honen bitartez udal honi bidali diozuen 1423/2014/QC erreferentzia dun kexa-espeditentea erantzun nahiko genizueke.*

*Espediente honek (...) herritarrari eragiten dio, bere izenean dagoen furgoneta bati (karabana bat oker ez bagaude) TAO bertako txartela ez zaiolako eman.*

*Jaso dugun idazkian onartzen denez erabaki horri TAO ordentzari jarraiki eman da, eta idazkiaren helburua ordenantzak bereizketa hori egitearen arrazoia galdetzen da.*

*Egia esan, ibilgailu motari buruzko irizpidea ez da berria TAO ordenantzan, ibilgailu mota zehatz batzuek (furgonetak eta karga deskargarako deituriko ibilgailuak batez ere) tarifa zehatz batzuen abantailak goza ditzakete, lan eta funtzio batzuetara egokituak direlako. Beste ibilgailu mota batzuek, ordea, ezin dituzte abantaila horiek gozatu.*

*Orobat, azken ordenantza aldaketan Donostiako Udal Talde baten zuzenketa proposamen batek bertako TAO txartela jaso ahal izateko ibilgailu mota definitzen zuen, zehazki (...) jaunaren kasuko ibilgailuek txartel hori lortu ahal izatea ekiditeko asmoz. Zuzenketa horren helburua bertako txartela autoa mugimendu zehatz*





*batzuetarako erabiltzen duten eta etxetik gertu behar duten pertsonentzat gordetzea zen.*

*Aurreikuspen horren oinarria da, kasu batzuetan Donostiako arauturiko esparruan horrelako ibilgailuak bazirela, ez zeudenak eguneroko erabilera bati lotuak.*

*Hau da, beren funtzio nagusia betetzeko zain zeuden: bidaia edo txango batean ibilgailu eta aterpe funtzioak betetzea.*

*Hori dela eta, esan bezala, Udal Talde batek zuzenketa bat aurkeztu zuen eta zegozkion txosten tekniko eta juridikoak gaindituta, Udalbatzara eraman zen eta bertan onartu zen, eta ondorioz Ordenantza berrian sartu. Ibilgailu motako bereizketa ez da berria eta beste irizpide batzuen artean funtzioari eta ibilgailu motari loturiko ibilgailuak daude.”*

### Gogoetak

1. Donostiako Udaleko Aparkaldi Arautuaren Udal Zerbitzuko Ordenantzak egoiliarren salbuespenezko araubidea honakoei aplikatzen zaie bakarrik: *“Autoei, ibilgailu misto egokigarriei, hiru gurpileko ibilgailuei eta kuadrizikloei, baldin eta baimendutako gehieneko masa 3500 kg-koa badute”* (14.1 artikulua).

Aparkamenduaren arloan egoiliarren araubideak dakartzan onurak ibilgailu jakin batzuetara mugatzea, eta hortaz, kategoria horietan sartzen ez direnak kanpo uztea, gure iritziz, ordenamendu juridikoak udalei uzten dien tarte zabalean sar daitezkeen aukeretako bat da trafikoa ordenatzeko eta aparkaldiak arautzeko [Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilko 2ko 7/1985 Legearen 25.2.g) artikulua, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onartzen duen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren 7.a) eta b) artikuluei eta 38.4 artikuluari loturik].

Tarte horrek esan nahi du udal-administrazioek legez hauta dezaketela dauden aukera posibleetatik haien ustez hoberena, dituzten xedek betetzeko.

Hala ere, Administrazioaren irizpide subjektiboaren bidez eratzen diren elementuez gain, tarteak ematen duen ahalmen osoaren barruan badaude legeak zehaztutako beste elementu batzuk, eta horien inguruan Administrazioak ez du balioespen-tarterik. Azken horiei elementu arautuak deitzen zaie eta horien artean honako hauek daude: ahalmena egotea, ahalmenaren hedadura, prozedura, ahalmena erabiltzeko eskuduntza eta ahalmen hori ematearen xedea.





Gogoan izan behar da, gainera, eskumeneko botere horiek erabiltzeak muga jakin batzuk dituela, doktrinak eta jurisprudentziak zehaztutakoak; muga horietako batzuk araututako edukiari berari dagozkio, beste batzuek, berriz, Zuzenbidearen printzipio orokorrekin zerikusia dute, baita egitateekin ere.

Muga horien guztien artean, kexan azaldutako kontuekiko lotura dela-eta azpimarragarria iruditzen zaigu ahalmena egikaritzeak egokia izan behar duela, hau da, ahalmen hori gaitu duen araudiaren xede orokorraren, eta neurria hartzearekin lortu nahi den berariazko helburuaren arabera.

Arrazoitzea edo, gauza bera dena, neurria justifikatzen duten arrazoi zehatzak eta neurri horren bidez lortu nahi den xedea ezagutzea funtsezkoa da kasuan-kasuan aurretik aipatutako egokitze judizioa egin ahal izateko.

Andaluziako Auzitegi Nagusiko Administrazio Auzibideetarako Aretoak (Granada, Atal Bakarra) apirilaren 24an emandako 552/2000 epaian, eskumeneko erabakiak arrazoitzearen garrantzia honelaxe azpimarratu du:

*“Dado que las potestades administrativas, y por tanto también las discrecionales, son atribuidas por el ordenamiento jurídico a la Administración para que ésta pueda servir los intereses generales –art. 103.1 de la Constitución– es claro que la actuación de aquéllas no puede legalmente ser cauce hábil para la arbitrariedad. Y es la motivación de las decisiones discrecionales un importante instrumento a la hora de evitar que el resultado de la discrecionalidad sea una arbitrariedad. El poder administrativo de un Estado de Derecho es siempre, y más todavía el poder discrecional, un poder obligado a dar cuenta de su efectivo servicio a la función para la que fue creado, a justificarse en su ejercicio y a justificar también su conformidad a la Ley y al Derecho, a los que está expresa y plenamente sometido por la Norma Fundamental y en esta línea, «la motivación de la decisión comienza, pues, por marcar la diferencia entre lo discrecional y lo arbitrario y ello porque, si no hay motivación que la sostenga, el único apoyo de la decisión será la sola e insuficiente voluntad del órgano competente» (Fundamento de Derecho cuarto)”.*

2. Kontua da Donostiako Udalaren erabakia –hain zuzen, egoiliarren araubidean Aparkaldi Arautuaren Udal Zerbitzuko Ordenantzaren 14.1 artikuluan zerrendatzen diren ibilgailuak bakarrik sartzeari adierazitako ikuspegitik aztertu ahal izateko, funtsezkoa dela honako hauek ezagutzea: Udalak neurri horren bidez lortu nahi izan duen xedea; neurria justifikatu dezaketen arrazoi zehatzak; ibilgailu batzuk egoiliarren araubidetik kanpo uzteko arrazoiak, ibilgailu horiek araubideak barne hartzen dituen kategorietakoen antzekoak diren arren (baimendutako gehieneko masari, kanpoko neurriei eta maniobragarritasunari dagokienez), eta erabilera partikularri buruzko baldintza ere bete duten arren. Dirudienez, horixe gertatzen da kexagilearen furgonetaren kasuan.





Aurrekarietan adierazi bezala, Udalak zera jakinarazi digu: egoiliarren araubidean ibilgailuen kategoria jakin batzuk bakarrik sartuz lortu nahi du, alde batetik, araubidea ibilgailua joan-etorri zehatz batzuetarako erabiltzen duten eta bizilekutik hurbil eduki behar duten pertsonentzat gordetzea; bestaldetik, saihestu nahi du kexagilearena bezalako ibilgailuei egoiliar-bereizgarria ematea; dirudienez, Udalak emandako azalpena ikusita, karabana bat dela ulertzen du. Era berean, adierazi duenez, araupeko gunean mota horretako ibilgailuak daude, egunero erabiltzen ez direnak, eta horretan oinarritu du bere erabakia.

Oroz gain, azaldu behar dugu kexagilearen ibilgailua ez dela karabana bat, Sprinter 312-D furgoneta bat baizik, eta Udalak berak aurreko batean helarazi digun informazioaren arabera, etxe-ibilgailutzat jo dute ibilgailuaren dokumentuetan.

Karabana eta auto-karabana trafiko-arauetan honela definitzen dira, hurrenez hurren *"atoia edo erdi-atoia, etxe mugikor bezala erabiltzeko sortu eta egokitua; ibilgailua aparkatuta dagoenean bidaiari-lekua erabiltzeko aukera duena"* eta *"helburu berezi bat betetzeko egindako ibilgailua, lo egiteko eta bizitzeko lekua duena eta, gutxienez, honako ekipamendu hauek barne hartzen dituena: eserlekuak eta mahaia, eserleku bihur daitezkeen oheak edo ohatzeak, sukaldea eta armairuak edo antzekoak. Bizileku-konpartimentuan zurrin finkatuta egongo dira. Eserlekuak eta mahaia erraz desmuntatzekoak izan daitezke"*. Furgonetaren definizioa, berriz, hauxe da: *"gutxienez lau gurpil dituena ibilgailua, salgaiak eramateko asmatu eta egina, kabina gainerako karrozerian integratuta duena eta, gehienez, 9 plaza dituena, gidariarena barne"*. Eta azkenik, etxe-ibilgailua: *"etxebizitza bezala erabiltzeko egokitua den ibilgailua"* (Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatuaren I. eranskina eta abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bitartez onartutako Ibilgailuen Araudi Orokorraren II.A eranskina).

Kexagileak emandako informaziotik ondorioztatu dugunez, bere furgonetaren berezitasuna zera da: ez dela erabiltzen salgaiak eramateko, baizik eta erabilera partikularrekoa dela eta barrukoa egokitua daukala aisialdiko bidaietan lo egiteko erabili ahal izateko.

Udalak eman digun informazioaren arabera ezin da jakin ibilgailuaren erabileretako zein hartu den kontuan egoiliarren araubidean sartu ala ez erabakitzeke, esan bezala, oro har joan-etorri zehatzak aipatzen baititu, zeintzuk diren zehaztu gabe.

Gainera, ez ditu azaltzen egoiliarren araubidean sartu direnen pareko ibilgailuak araubidetik kanpo uzteko arrazoiak. Izan ere, kexagilearen kasuan ikusten den bezala, ibilgailu horiek antzeko baimendutako gehieneko masa, kanpoko neurriak, maniobragarritasuna eta erabilera dituzte, egunero erabiliak izateko baldintza betetzen dute eta titularren bizilekutik gertu aparkatuta egon





behar dute. Hala ere, ikuspegi hori, ezta erreserbaren gunean eragin duten irizpideak ere, ez dira erabili kexagilearen ibilgailua araubidetik kanpo uzteari buruzko iritzia emateko.

Hala ere, Udalak helarazi digun informaziotik ondoriozta daiteke egoiliarren araubidean pertsonak eramateko eta erabilera partikularreko ibilgailuak bakarrik sartzea dela araubidea mugatuz lortu nahi duen helburua. Era berean, Udalak saihestu nahi du karabanak edo auto-karabanak egoiliarren araubideaz baliatzea, bereziki, ibilgailu-kategoria horiek legez esleituta duten xederako eta ez titularraren ibilgailu partikularra izateko erabiltzen direnak.

Horiek horrela, eta beste azalpenik ezean, erakunde honek ez du inolako arrazoi objektiborik ikusten ibilgailu horiek araubidetik kanpo uztea justifikatzeko. Esan bezala, erabilera-irizpide berberak betetzen dituzte, titularraren bizilekutik gertu aparkatuta egon behar dute eta antzeko ezaugarriak dituzte, baimendutako gehieneko masari, kanpoko neurriei eta maniobragarritasunari dagokienez. Dirudienez, jasotako informazioaren arabera, irizpide horiek erabili ditu Udalak egoiliarren araubidea mugatzeko.

Lehen aipatu bezala, kexagilearen furgoneta zaharra bai baliatzen zen egoiliarren araubideaz; izan ere, kexagilearen arabera, berriaren antzekoa zen, ezaugarri eta erabilera-irizpideei dagokienez.

Azaldutako guztia ikusita, uste dugu Udalak Ordenantza berraztertu beharko duela, egoiliarren araubidea zabaltzeko eta dituen onurak beste ibilgailu batzuen kasuetan aplikatzeko. Zehazki, kontuan hartu beharko lituzke egungo zehaztapenak oinarri dituen irizpideak eta araubidea eratuz lortu nahi den helburua betetzen dituzten ibilgailuak, nahiz eta, formalki, ezarritako kategorietakoak ez izan.

Horregatik guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Arartekoak honako gomendio hau eman dio Donostiako Udalari:

## GOMENDIOA

Aparkaldi Arautuaren Udal Zerbitzuko Ordenantza berriz azter dezan, TAO zonako egoiliarren araubidea zabaltzeko eta irizpide orokor batzuk (zerbitzuaren onuradunak diren ibilgailuen zehaztapenaren oinarri direnak) eta araubide horren xedea betetzen dituzten ibilgailu guztiak barne hartzeko, formalki, ezarritako kategorietakoak ez badira ere.

